

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021eko urria

## Aurkibidea

1. EAEko BPGaren hazkundera

2. Inflazioa

3. Familien konfiantza

4. Kanpo merkataritza

5. Sentimendu ekonomikoa

6. ELGEren aurreikuspenak

7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

### 1. EAEko ekonomia %6,7 haziko da 2021ean.

Datorren urtean BPGaren aldakuntza tasa %6,4an kokatuko da.

### 2. Argindarraren fakturak erregistrorik altuenera 2011tik eraman du KPIa

Erregaien eta lehengaien ere eragina izan zuten garestitzean.

### 3. EAEko familien konfiantza indartu egin da

Ekonomia orokorraz eta langabeziak dituzten iritziek baikortasun handiagoa ekarri dute.

### 4. Euskal esportazioek susperraldia sendotu dute

Siderurgiak eta makineriak garraio materialaren salmentaren beherakada konpentsatu zuten.

### 5. Euroguneko sentimendu ekonomikoa baikorra da oraindik

Abuztuko mailaren aldean bi hamarren hobetu da.

### 6. Munduko ekonomiaren susperraldi ezberdinak

Finantza baldintzek eta aurrekontuen bultzadak ekonomia garatuei mesedea egingo diete.

### 7. Hilabeteko laburpena.

Itzalek ez dituzte aurreikuspenak okertzen.




# EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

## EAEko ekonomia %6,7 haziko da 2021ean

### BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

**BPGA 2021**  
**%6,7**




Ekonomiaren epe laburreko bilakaerari buruzko ziurgabetasuna handia da oraindik. Covid-19aren aldaera berriak eta haren ondorio sanitarioa eta ekonomikoa dira aurreikuspen ekonomikoetarako arrisku nagusia. Beste faktore batzuek ere etorkizuneko bilakaera makroekonomikoa baldintzatuko dute, hala nola inflazioaren aurreikuspenak, hornikuntza arazoek sortu dituzten eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak eta Europako funtsen kudeaketa.

Zuzendaritzak eguneratu egin du 2021-2022 aldirako EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa. Hala, hazkunde tasa, batez beste, %6,7 izango da 2021ean, eta %6,4, berriz, 2022an. 2021erako BPGaren datu globala bere horretan geratu bada ere, zertxobait aldatu da hazkundearen osaera. Izan ere, barne eskariaren ekarpena gorantz berrikusi da, azken kontsumoko gastuaren ekarpena eta kapital eraketa gordina handitu egin direlako. Aitzitik, orain kanpoko saldoaren ekarpena lehen aurreikusitakoa baino negatiboagoa izango dela espero da.

Eskura dagoen koitunturako informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza


### AZKEN KONTSUMOEA

Urte arteko aldakuntza tasa




### KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




## INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Familiaren kontsumoak erritmo onean egingo du gora, konfiantza handitu delako, aurrez-kia metatu dutelako eta lan igurikimenak hobek direlako. Inbertsioaren dinamismoaren oinarria izango da munduko testuinguru hobetzea, enpresen konfiantza handitzea eta ekonomia suspertzeko Europako funtsak bultzatzea. Eskaintzari dagokionez, ekoizpen adar guztiek ekarpen positiboa egingo diote EAEko BPGaren hazkunderari, bai 2021ean, bai 2022an.

BPGaren igoerak eragin handia izango du enpleguan. Lanaldi osoko lanpostuei dagokionez, %5,1eko eta %3,3ko hazkundera aurreikusten da 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren. Azkenik, langabezia tasa %10,3ra motelduko da 2021ean eta %9,5era iritsiko da 2022an.


## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

# INFLAZIOA

## Argindarraren fakturak erregistrorik altuenera 2011tik eraman du KPIa

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Argindarraren prezioen goranzko joera etengabeak %3,3ra eraman zuen abuztuko KPIa urte arteko tasan, hots, aurreko hilabeteko tasa baino lau hamarren gorago. Hori horrela izanda, inflazioak zortzi hilabetez jarraian tasa positiboak kateatzen ditu. 2011ko maiatzetik ez zen lortzen balio altu hori, hileko hartan prezioak %3,4 igo baitziren.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2019	2020	2021eko abuztua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,0	-0,1	3,3	3,3
Azpiko inflazioa (%80,5)	1,0	0,8	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%16,7)	0,6	1,7	1,4	0,2
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	0,3	1,1	0,3
- Zerbitzuak (%40,2)	1,6	0,8	0,7	0,3
Hondar inflazioa (%19,5)	0,8	-4,0	12,9	2,5
- Landu gabeko janariak (%9,5)	1,3	4,0	2,4	0,2
- Energia (%10,0)	0,4	-9,4	22,8	2,3


### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Zalantzarik gabe, argindarraren prezioaren igoera KPIaren gorabeheren osagai aldakorrena eta erabakigarriena bihurtu da, handizkako merkatuan gertatzen ari den argindarraren prezioaren gorakadaren ondoren. Horregatik guztiagatik, etxebizitzaren prezioen urte arteko aldakuntza %11,6 izan zen, uztailean baino 2,2 puntu handiagoa. Goranzko presio horri erregaiek eragin zutena gehitu zitzaion, %16,5eko gorakadarekin, petrolioaren prezioaren igoeraren ondorioz, nahiz eta egia izan

nahiko egonkor mantendu zela. Erregaien garestitzearen egungo testuinguruari gehitu behar zaio lehengaien gorakada nabarmena, hornidura kateetan izandako etenaldiek eraginda; hala, garraio taldeari bi aldiz eragin zioten, eta, horrela, hiru hamarren igo zen aldakuntza, %8,5era arte. Azkenik, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak ere lagundu zuen inflazioa handitzen, urteko tasa %2,0 izan baitzen, batez ere fruta freskoaren prezioak gora egin zuelako (%3,7).

### KPI TALDE NAGUSIAK


Urte arteko aldakuntza tasa. 2021eko abuztua

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>3,3</b>	<b>3,3</b>	<b>3,0</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,0	1,9	1,9
Edari alkoholdunak eta tabakoa	-0,2	-0,2	2,3
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,1	3,6
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaia	11,6	11,5	5,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	2,1	0,8	2,0
Osasuna	0,7	0,7	0,4
Garraioa	8,5	8,8	7,4
Komunikazioak	-3,0	-3,1	0,1
Aisia eta kultura	-0,9	-0,6	-0,5
Hezkuntza	0,6	-0,2	0,2
Jatetxeak eta hotelak	1,6	1,3	2,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,6	0,9	2,0

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

## EAEko familien konfiantza indartu egin da

### EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA



### 2021EKO III HIRUHILEKOA

**+5**




Laboral Kutxak egindako EAEko familien konfiantza indizeak aurreko hiruhilekoan hasi zen baikortasunerako joera sendotu zuen aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Bere konfiantza indizearen balioa 5koa izanik, eremu positiboan finkatu da. Kutsatuen olatu berriak agertu arren, txertaketak aurrera egin du, murrizketak lasaitu dira eta mugikortasuna eta jarduera ekonomikoak suspertu dira. Horri esker, susperraldiaren eszenategia sendotu egin da, eta EAEko familiek argi eta garbi ikusi dute hori.

Baikortasun hori ez dator bat Espainiako (-9), Europar Batasuneko (-6), Frantziako (-6) eta Alemaniako (-3) familien ezkortasunarekin, nahiz eta guztietan sentimendua hobetu dela ikusi den. Herbehereak joera horretatik urrundu dira, non bere konfiantzak hiru puntu egin duen atzera, bere indizea balio neutro batean geratuz (0). Espainiaren kasuan, susperraldian oraindik atzeratuta dauden jarduera batzuek, hala nola nazi-orteko turismoak, duten pisu handiak azaltzen du konfiantza falta hori.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2019	2020	2020				2021		
			I	II	III	IV	I	II	III
<b>Euskadi</b>	-2	-22	-1	-24	-30	-33	-32	+2	+5
<b>Europar Batasuna</b>	-6	-15	-7	-21	-15	-17	-15	-7	-6
Frantzia	-9	-13	-8	-18	-12	-14	-13	-6	-6
Alemania	-2	-10	-3	-16	-9	-11	-11	-4	-3
Espainia	-6	-23	-10	-28	-27	-26	-22	-11	-9


## EKONOMIA OROKORRA



EAEko familien konfiantzaren hobekuntzaren oinarria ekonomia orokorrari (+6) eta langabeziari (+11) buruzko itxaropenek gora egiten jarraitu zutela izan zen. Itxaropen horiek bat datoz Gizarte Segurantzak afiliazioaren eta langabeziaren bila-kaerari buruz argitaratutako datuekin. Datu horiek suspertzen jarraitzen dute, eta pandemia hasi aurreko mailetatik gertu daude.

Aurrezkiaren igurikimenak (+5) hobetu egin ziren, baina gutxiago (puntu bakarra). Haren erorketa askoz txikiagoa izateak hobekuntza ibilbide muga-tuagoa dakar. Kasu honetan, nahiz eta gaur egun


## FAMILIAREN EKONOMIA




murrizketen ondorioz behartutako aurrezpenik ez egon, aurrezteko asmoak bere horretan jarraitzen du.

Familiaren ekonomiari buruzko itxaropenak soilik mantendu ziren maila ezkorrean, eta bi puntutan sakondu zuten beherakada (-4). Kontsumitzaileek historikoki adierazle horri buruz duten zuhurtzia handiagoak azaltzen du desberdintasun hori. Ar-gindarraren fakturaren gorakada izan zen, beste-ak beste, familien pertzepzioan beherakada era-gin zuen adierazleetako bat.

## LANGABEZIAREN BILAKAERA



## AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral kutxa.

## Euskal esportazioek susperraldia sendotu dute


Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, EA-Eko guztizko esportazioak 2.186 milioi eurotik gorakoak izan ziren uztailean, kopuru handia pandemiaren saldutako 1.857 milioiekin alderatzen denean. Zenbateko hori Covid aurreko salmenta mailetara hurbiltzen da, eta hirugarren uztailik onena da 2008az geroztik. Halaber, hiruhileko arteko hazkunde jarraituaren hirugarren hilabetea izan zen, eta horrek esportazioen susperraldia sendotu zuen.

Barne jardueraren hobekuntza inportazioen bilakeran nabarmendu zen, pandemia hasi aurreko erosketa mailetara ere hurbildu baitziren. Zehazkiago adierazita, inportazioek, guztira, %25,1eko hazkundea izan zuten 2021eko uztailean, 1.675 milioi eurotik gorako zenbatekoarekin. Horren guztiaren ondorioz, guztizkoaren saldoak 511 milioi euroko superabita izan zuen.

### ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Urte bakoitzeko uztaila  
Milioi euro

URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA  
**%17,7**





### INPORTAZIOAK GUZTIRA

Urte bakoitzeko uztaila  
Milioi euro

### MERKATARITZA SALDOA GUZTIRA

Urte bakoitzeko uztaila  
Milioi euro





## ESPORTAZIOAK ARANTZEL TALDEEN ARABERA

Urte bakoitzeko uztaila. Milioi euro.


	2019	2020	2021	% 2021	Aldakunt.
<b>ESPORTAZIOAK GUZTIRA</b>	<b>2.242,3</b>	<b>1.857,2</b>	<b>2.186,2</b>	<b>100,0</b>	<b>17,7</b>
Nekazaritzako produktiak	114,7	86,7	127,0	5,8	46,5
Produktu mineralak eta energetikoak	162,1	78,2	119,4	5,5	52,7
Produktu kimikoak	65,6	50,6	77,1	3,5	52,3
Plastikoa eta kautxua	130,9	119,5	144,5	6,6	20,9
Papera eta manufakturak	53,7	47,8	58,7	2,7	22,8
Metal arruntak eta horien manufakt.	424,8	362,7	529,5	24,2	46,0
Makinak eta aparatuak	448,5	407,5	443,0	20,3	8,7
Garraio materiala	720,6	581,3	547,4	25,0	-5,8
Beste manufaktura batzuk	121,4	122,9	139,6	6,4	13,6

Azterketa esportazioetan fokatuz, hauek %17,7 hazi ziren produktu siderurgikoek gora (%46,0) egin zutelako eta makina eta aparatuak gehiago (%8,7) saldu zirelako, garraiorako materialaren beherakada konpentsatu baitzuten (-%5,8). Mercedeseko instalazioko geldialdiek, erdieroaleen hornidura faltaren ondorioz, partida hori oztopatu zuten neurri handi batean.

EAEko salmenten helmugako herrialdeei dagokienez, beste behin ere esportazioen %62 27 kidez osatutako Europar Batasunean kontzentratu ziren. Alemania, Frantzia eta Belgika izan ziren hartzaile nagusiak.


### ESPORTAZIOAK ALEMANIARA

Urte bakoitzeko uztaila  
Milioi euro




### ESPORTAZIOAK FRANTZIARA

Urte bakoitzeko uztaila  
Milioi euro



### ESPORTAZIOAK BELGIKARA

Urte bakoitzeko uztaila  
Milioi euro



Iturria: Eustat eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa.



# EKONOMIA SENTIMENDUA


## Euroguneko sentimendu ekonomikoa baikorra da oraindik

SENTIMENDU EKONOMIKOA.  
EUROGUNEA

IRAILEKO DATUA

**117,8**

Irailean, euroguneko ekonomia sentimendua zertxobait igo zen, 117,8 puntura iritsiz. Uztailean lortutako errekorra baino puntu bat beherago badago ere, adierazle horrek erakusten duen irudia baikortasunari oso maila altuetan eusten diola da. Adierazle horren bost osagaiak oso aldeko posizioetan daude, bereziki industria, markarik onenetik lau hamarrenetara baino ez baitago. Orobat, azpimarratzekoa da eraikuntzaren sektorearen hobekuntza ere, pandemia hasi zenetik izandako daturik altuena




lortu zuelako. Beste aldetik, kontsumitzailearen konfiantzak gora egin du aurreko bi hilabeteekin alderatuta. Aitzitik, bai zerbitzuek, oro har, bai txikizkako merkataritzak intentsitate pixka bat galdu dute, nahiz eta egoera onean jarraitzen duten.

Enpleguaren igurikimenean adierazleak gora egin zuen berriro, bai euroaren eremuan, bai Europar Batasunean, eta 113,6 puntura iritsi zen, 2018ko erdialdetik izandako mailarik altuena baita.


SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROPAR  
BATASUNA

IRAILEKO DATUA

**116,6**




## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Alemaniak errekor berria ezarri zuen bere sentimendu ekonomikoan, 118,0 puntura iritsi baitzen. Herralde horretan, industriaren indarra nabarmentzen da, hilabete honetan ere bere posizio altuena erregistratu baitu. Gainerako osagaiak posizio onetan daude, baina erregistro altuenetatik urrun. Espainian ere hobekuntza gertatu da eta uztaileko balioa gainditu du, nahiz eta zenbait puntu falta zaizkion erregistrorik onena berdintzeko, 2000. urteko apirilean lortu zena. Industriak baikortasun handia erakusten du, eta zerbitzuak sendo doaz aurrera.

## SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Kontrako norabidean, Frantziak bigarren atzerapausoa eman zuen eta uztailean gozatu zuen une onetik aldendu da. Txikizkako merkataritzan atzerakada oso garrantzitsua izan da, ezkortasun eremura igaro baita. Gainerako osagaiak egoera baikorreen daude, nahiz eta industriak eta zerbitzuek intentsitatea galdu duten. Azkenik, Italian irailean berriro okertu zen sentimendu ekonomikoa, baina osagai guztiak posizio sendoan daude, batez ere industria eta eraikuntza.

## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA




Iturria: Europako Batzordea.

## ELGE-REN AURREIKUSPENAK

# Munduko ekonomiaren susperraldi ezberdinak

### MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Aurreikuspenen arabera, munduko ekonomiaren susperraldiak bere horretan jarraituko du, baina profil desberdinekin eremu ekonomiko bakoitzean. Herrialdeen artean alde handiak daude txertaketa erritmoetan, birusaren aldaera berriekiko esposizioan eta laguntza ekonomikoko politiketan, eta, ondorioz, eragin handia izango dute bilakaera ekonomikoan.


Munduko hazkunde ekonomikoa dinamikoa izango da, eta %5,7ra eta %4,5era iritsiko da 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren. Epe laburrean, hazkundera moteldu egingo da, aldaera berrien inpaktuagatik eta hornidura murrizketengatik. Elementu horiek aldi baterakoak dira, eta datozen hilabeteetan diluituko dira.

### ELGEREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>-3,4</b>	<b>5,7</b>	<b>4,5</b>	<b>-0,1</b>	<b>+0,1</b>
AEB	-3,4	6,0	3,9	-0,9	+0,3
Eurogunea	-6,5	5,3	4,6	+1,0	+0,2
Alemania	-4,9	2,9	4,6	-0,4	+0,2
Frantzia	-8,0	6,3	4,0	+0,5	0,0
Italia	-8,9	5,9	4,1	+1,4	-0,3
Espainia	-10,8	6,8	6,6	+0,9	+0,3
Erresuma Batua	-9,8	6,7	5,2	-0,5	-0,3
Kanada	-5,3	5,4	4,1	-0,7	+0,3
Japonia	-4,6	2,5	2,1	-0,1	+0,1
Txina	2,3	8,5	5,8	0,0	0,0
India	-7,3	9,7	7,9	-0,2	-0,3
Brasil	-4,4	5,2	2,3	+1,5	-0,2

## AEBETAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

## EUROGUNEKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

## ALEMANIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022


Finantzaziorako baldintza erosoek eta politika makroekonomikoen aparteko babesak emango diote ekonomia aurreratuen eskariari. Europako berreskuratze funtsek eta AEBetako azpiegituretan gastua handitzeak hazkundera bultzatuko dute eremu ekonomiko horietan.

Azaleratzen ari diren ekonomietan, Txinak pandemia baino lehenagoko hazkunderen antzekoak eskuratuko ditu. Hala ere, energiaren prezioen gorakadarekiko kalteberak diren eta txertaketa ratioek baxu jarraitzen duten herrialdeek ez dute epe laburrean susperraldi ekonomikoa lortzeko bermerik izango.

Hala, ELGEren arabera, susperraldi globala prekarioa eta zalantzakoa izango da birusa kontrolpean izan arte, eta, ondorioz, txertoen eskuragarritasun masiboa ere globala izatea ezinbestekoa da.

## TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.



## HILABETEKO LABURPENA

# Itzalek ez dituzte aurreikuspenak okertzen

Egun hauetan asko hitz egiten da inflazioaz, elektrizitatearen igoeraz, gasaren prezioaz, erdieroaleen gabeziagatik sortu diren botila lepoez eta abarrez. Horiek guztiak arazo garrantzitsuak dira eta nolabaiteko tentsio mediatikoa sortzen ari dira. Hala eta guztiz ere, oraingoz horrek ez du eraginik izan aurreikuspenetan. Izan ere, **eurogunearen sentimendu ekonomikoak hobera egin zuen irailean, abuztuko datuekin alderatuta**. Egia da uztailleko datutik aldendu dela, historiako daturik handiena izan baitzen, baina oraindik baikor dago. Eraitza hori, neurri handi batean, industriari bizi duen une onari zor zaio, bere balio maximotik oso gertu mantentzen baita. Kontsumitzaileen konfiantzak ere hobera egin du abuztuarekin alderatuta. Sentimenduaren hobekuntza Alemanian eta Espainian nabari da; Frantzia eta Italia, berriz, apur bat okertu da sentimendua.

Euskadin, Laboral Kutxaren txostenaren arabera, **EAEko familien konfiantzak hobera egin du aurtengo hirugarren hiruhilekoan**, eta, beraz, aurreko hiruhilekoan eskuratutako datu positiboa sendotu egin da. Beraz, pandemiaren garaian (baita 2019ko zatirik handienean ere) bizi izandako ezkortasuna atzean geratzen ari da. Familien erantzun positiboan ekonomia orokorrari eta langabeziari buruzkoak izan dira. Aitzitik, familiak ez dira hain baikorrak beren ekonomiaz hitz egiteko orduan. Hala ere, EAEko familien konfiantza Europako familia baina handiagoa da orain, nahiz eta igurikimenak hobetzeko joera komuna den.

Konfiantzaren hobekuntza hori datu ekonomiko onetan oinarritzen da, eta horri esker, **EAEko ekonomiaren aurtengo hazkunde aurreikuspena %6,7an mantentzea eta datorren urtekoa %6,4ra igotzea ahalbidetu da**. Aurreikuspenen eguneratzeak adierazten du barne eskaria indartsuagoa izango dela eta, alderantziz, kanpoko saldoak ekarpen negatibo handiagoa egingo duela. Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko lanpostu baliokideak %5,1 haziko direla aurrean, eta %3,3, berriz, datorren urtean aurreikusten da. Horri esker, langabezia tasa %10,3ra jaitsiko da 2021eko batez bestekoan, eta %9,5era 2022an.

Aurreikuspen ekonomikoak berrikustea ohikoa da nazioarteko erakundearen artean. Hilabete honetan jakin da ELGEk zer aurreikuspen egin duen eremu ekonomiko nagusietarako eta munduko ekonomiarako. Eszenategi berrian, ia ez dago aldaketarik munduko ekonomiarako. Izan ere, %5,7koa da aurrean eta %4,5koa, berriz, datorren urtean, hamarren bateko aldaketekin, beherantz edo gorantz, aurreko estimazioarekin alderatuta. Aurreikuspen taula horretan, **nabarmenezkoa da 2021ean eurogunerako egindako goranzko zuzenketa (puntu 1), Espainiari ere mesede egiten diona (0,9 puntu)**. Bere hausnarketan, erakunde honek eremu ekonomiko bakoitzaren hazkundera dagoen aldea adierazten du, txertoak eskuratzeko duten aukeraren eta abian jartzen diren sustapen fiskaleko politiken arabera. Horregatik uste du susperraldia azkarragoa izango dela ekonomia garatuetan garapen bidean dauden herrialdeetan baino.

Azkenik, merezi du hileko laburpen honetan aipatzea Espainiako kontu ekonomikoak argitaratzean sortu den zalaparta, **INEk berak aurretik egindako aurrerapena bi puntu baino pixka bat gehiago zuzendu baitu**. Analista batzuen ustez, horrek aurtengorako espero den hazkundera murriztera behartuko du; beste batzuen ustez, ordea, oraindik posible da urteko batez besteko zifra %6,2 ingurura iristea, hori baita kontu ekonomikoak argitaratu baino lehen argitaratutako aurreikuspenen batez bestekoa. Laster ikusiko dugu.

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020			2021	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG</b>	<b>2,2</b>	<b>-9,9</b>	<b>-19,9</b>	<b>-8,1</b>	<b>-8,1</b>	<b>-2,9</b>	<b>18,6</b>
Barneko azken kontsumoa	2,0	-8,9	-16,8	-7,6	-7,0	-2,5	18,1
Familien kontsumoa	1,7	-12,4	-21,9	-10,3	-10,6	-3,7	22,6
Administrazioaren kontsumoa	3,1	3,8	2,2	2,8	6,5	1,6	5,2
Kapital eraketa gordina	3,3	-11,7	-23,2	-11,5	-8,5	-1,3	21,4
Barne eskaria	2,3	-9,6	-18,3	-8,5	-7,4	-2,2	18,9
Esportazioak	-0,2	-16,1	-29,2	-14,3	-13,8	-2,4	30,1
Inportazioak	0,0	-15,4	-26,6	-14,7	-12,5	-1,4	29,8
Lehen arloa	5,9	-15,0	-13,7	-13,0	-28,1	-7,1	7,8
Industria eta energia	1,4	-11,2	-26,2	-8,9	-6,8	-1,1	30,2
Eraikuntza	2,4	-8,2	-16,7	-7,7	-6,5	-2,4	11,5
Zerbitzuak	2,5	-9,0	-17,8	-7,2	-7,7	-3,5	15,5
Balio erantsi gordina	2,3	-9,5	-19,7	-7,7	-7,6	-2,9	18,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,0	-13,6	-21,3	-11,8	-12,8	-3,0	20,4
Enplegua	1,5	-7,7	-16,8	-5,8	-5,9	-2,1	16,6

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021		2021	2022				2022
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>5,5</b>	<b>7,4</b>	<b>6,7</b>	<b>8,8</b>	<b>7,5</b>	<b>5,6</b>	<b>4,0</b>	<b>6,4</b>
Barneko azken kontsumoa	5,8	6,9	6,7	8,1	5,8	5,2	3,8	5,7
Familien kontsumoa	6,8	8,2	7,9	9,9	7,0	6,3	4,4	6,8
Administrazioaren kontsumoa	2,9	2,7	3,1	2,2	2,0	1,6	1,8	1,9
Kapital eraketa gordina	6,0	8,3	8,0	8,7	9,9	5,3	3,4	6,7
Barne eskariaren ekarpena	6,1	7,5	7,3	8,5	7,1	5,4	3,8	6,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,6	-0,1	-0,6	0,3	0,4	0,2	0,2	0,3
Lehen arloa	5,9	9,0	3,5	6,9	9,5	-2,5	-6,1	2,3
Industria	6,9	7,6	9,7	7,9	7,1	5,2	2,5	5,6
Eraikuntza	4,1	4,8	4,2	5,0	5,8	3,3	3,9	4,5
Zerbitzuak	5,0	7,5	5,7	9,3	7,9	6,0	4,4	6,8
Balio erantsi gordina	5,3	7,3	6,6	8,7	7,6	5,6	3,8	6,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	7,1	8,5	7,8	10,4	6,0	6,1	5,9	7,0
Lanaldi osoko lanpostuak	3,5	3,8	5,1	4,1	3,2	2,9	2,9	3,3
Landunak (BJA)	2,8	1,9	1,3	1,9	1,0	1,1	0,6	1,2

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
Confebask	7,2	—	CEPREDE	5,7	5,6
Hispalink (BEGren aldak.)	6,7	5,3	BBVA	5,5	7,5
Laboral Kutxa	6,3	6,8	Funcas	5,5	—

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020			2021	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG</b>	<b>2,1</b>	<b>-10,8</b>	<b>-21,5</b>	<b>-8,7</b>	<b>-8,8</b>	<b>-4,2</b>	<b>17,5</b>
Kontsumo pribatua	0,9	-12,2	-24,5	-9,0	-10,1	-6,2	23,4
Kontsumo publikoa	2,0	3,3	2,7	3,6	4,7	3,8	3,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,5	-9,5	-22,2	-7,3	-5,7	-2,7	18,8
- Aktibo finko materialak	5,8	-10,5	-24,8	-7,5	-6,3	-2,9	21,2
- Eraikuntzan	7,1	-9,6	-20,3	-7,8	-8,8	-9,6	9,2
- Ekipamendu ondasunetan	3,2	-12,9	-33,8	-7,6	-2,6	8,5	46,8
- Jabetza intelektualaren produktuak	-1,5	-4,3	-8,9	-6,2	-2,8	-1,3	8,4
Nazio eskaria (ekarpena)	1,6	-8,6	-18,2	-6,4	-6,5	-3,0	17,3
Esportazioak	2,5	-20,1	-38,3	-19,7	-15,3	-7,3	38,9
Inportazioak	1,2	-15,2	-31,6	-14,5	-9,5	-3,9	38,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	6,4	5,8	Intermoney	7,0	6,7
Axesor	6,1	5,7	Mapfre Economics	6,0	6,0
BBVA	6,5	7,0	Oxford Economics	6,1	5,8
CaixaBank	6,3	6,0	Repsol	6,1	5,8
Cámara de Comercio España	5,9	6,2	Santander	6,7	7,0
Cemex	6,5	6,0	Metyis	6,3	5,3
CEEM-URJC	6,3	5,7	Universidad Loyola Andalucía	6,1	6,4
CEPREDE-UAM	6,0	6,2	<b>Consenso (batez bestea)</b>	<b>6,2</b>	<b>6,1</b>
CEOE	5,7	6,0	Gobernua (2021-07)	6,5	7,0
Equipo Económico (Ee)	6,3	5,2	Espainiako Bankua (2021-06)	6,2	5,8
FUNCAS	6,3	5,8	Europar Batzordea (2021-07)	6,2	6,3
ICAE-UCM	6,6	8,4	NDF (2021-07)	6,2	5,8
IEE	5,4	5,7	Consensus Forecast (2021-08)	6,0	5,9

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.



# ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020			2021	
			II	III	IV	I	II
AEB	2,3	-3,4	-9,1	-2,9	-2,3	0,5	12,2
Txina	6,1	2,0	3,2	4,9	6,5	18,3	7,9
Japonia	0,3	-4,8	-10,1	-5,4	-0,8	-1,3	7,7
Kanada	1,9	-5,3	-12,6	-5,1	-3,1	0,3	12,7
Europar Batasuna	1,8	-5,9	-13,7	-3,9	-4,1	-1,2	13,8
Eurogunea	1,5	-6,3	-14,5	-4,0	-4,4	-1,2	14,3
Alemania	1,1	-4,6	-11,3	-3,7	-2,9	-3,1	9,4
Frantzia	1,8	-7,9	-18,6	-3,6	-4,3	1,5	18,7
Erresuma Batua	1,4	-9,8	-21,4	-8,5	-7,3	-6,1	22,2
Italia	0,3	-8,9	-18,2	-5,2	-6,5	-0,7	17,3
Herbehereak	2,0	-3,8	-9,1	-2,6	-3,1	-2,3	10,0

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

## CONSENSUS FORECAST. 2021EKO ABUZTUA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AEB	6,2	4,4	4,1	2,9	5,6	4,2
Japonia	2,4	3,0	0,1	0,5	2,9	2,7
Kanada	6,1	4,2	2,9	2,4	7,5	6,2
Europar Batasuna	4,6	4,3	2,1	1,7	—	—
Eurogunea	4,8	4,4	2,1	1,5	8,1	7,8
Alemania	3,3	4,4	2,8	1,9	5,8	5,4
Frantzia	5,9	3,9	1,5	1,3	8,3	8,3
Erresuma Batua	6,8	5,4	2,2	2,7	5,1	5,1
Italia	5,3	4,2	1,4	1,2	10,4	10,1
Espainia	6,0	5,9	2,1	1,4	—	—
Herbehereak	3,0	3,4	2,0	1,7	—	—

Iturria: Consensus Forecast.